

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Iribekanpos Garaizabal

*Elgeta, Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Angiozar auzoko Altamira Etxeberri baserrian jaio zen 1930ean. Aita Angiozarko "Loitti" (gaur galduta) baserrikoa zuen eta ama Elorrioko Berrio auzoko Uriarte baserrikoa. Aitak hamabi seme-alaba izan zituen bi aldiz ezkontuta. Bederatzi urte inguru zituela, gerra ostean, Angiozarko eskola nazionalean hasi zen eta pare bat urtez joan zen eskolara. 13 urterekin Elorrion joan zen armagin ikastera "Arrieta Orbe hermanos"en tailerrera. Soldaduskatik itzuli eta gero Elorrioko "Beleri" fundizioan sartu zen eta 11 urte egin zituen bertan. Handik Eibarko "Armas Bost"-era joan zen. Azken bi lan urteak Oñatiko "Lana"-n egin ondoren jubilatuta egin zen. Elorrioko Aldape auzoko Oztzeta baserriko Modestarekin ezkondu eta Elgetara etorri ziren bizitzera. Hiru seme-alaba izan dituzte.

Zintak

ELG-041

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-26
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Maisu makilazaleak

- **Erref:** ELG-041/003
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Angiozarrera etortzen ziren maisuak oso gazteak ziren. Makila erabiltzen zuten erraz umeeekin. Kexak izaten ziren horregatik, eta laster alde egiten zuten. Euskaraz egiteagatik jotzen zutela gehienbat, dio. Gutxi joan zen eskolara, etxean lagundu behar baitzen.

2. Elorriora "txispaginan" ikastera

- **Erref:** ELG-041/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:09:05

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Urte eta erdi bat egingo zuen eskolan denera ere. 13 urterekin Elorriora joan zen armari ofizioa ikastera, "txispaginan". Non bizi zen eta nola egiten zituen atzera-aurrerak.

3. Eibarren armagintzan 19 urtez

- **Erref:** ELG-041/009
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:15:25

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Fundizio utzi eta Eibarren hasi zen lanean, armagintzan (txispaginan), bere ofizioan, Armas Bost lantegian. 19 urte egin zituen han, lantegia itxi zen arte. Gero bi urte egin zituen Oñatin Lana lantegian. 62 urterekin jubilatatu zen.

4. Basoan lan asko egindakoa

- **Erref:** ELG-041/013
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:47

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoan lan asko egindakoa da. Erretiroa hartuta gero ere bai. Beti jornalean egin du lan. Basoko lan guztiak egin ditu, pinuak bota, zuritu, basoa garbitu... Asteburuan bere burua zaintzen zuen, astelehenean lanerako sasoian egoteko.

5. Kontrabandoko txahalekin Elorriora

- **Erref:** ELG-041/015
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:21:14. **Bukatu:** 00:23:22

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garia, patata eta abar entregatu behar izaten zen gerra ostean. Debekatuta zegoen arren txahalak Bizkaira saltzea, Juanek eta beste lagun batek ugari eraman zituzten gauez Angiozartik Elorriora, batzuk etxekoak eta beste batzuk inorenak. Prezio hobia egiten zuten Bizkaian.

6. 300 kilo gari entregatu behar kupo gisa

- **Erref:** ELG-041/016
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:24:45

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arabatik ez zuten kontrabandorik egiten. 300 bat kilo gari entregatu behar izaten zuten kupo gisa hasieran, eta gehiago gero. Hala ere, nahikoa izaten zuten etxerako. Goiz-garia ereiten zuten batzuetan, bestela justu samar ibiliko zirela jakinda.

7. Ura eta argindarra

- **Erref:** ELG-041/018
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:38

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean ura bazuten lehenengotan baina ez edatekoa. Gerora pare bat km-ra zegoen iturri bat hartu zuten. Argindarra beti ezagutu du etxean, Angiozarren zentral txiki bat zegoen eta. Gero Iberduero jabetu zen zentralaz eta eraikinean etxebizitza bat egin zen.

8. Babak eta porru-patatak egunero

- **Erref:** ELG-041/019
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:28:38. **Bukatu:** 00:30:54

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Goserik ez zuten pasatu. Errazionamendua ere jasotzen zuten. Babak jaten ziren bazkaritan egunero. Afaltzeko porru-patatak. Urtean pare bat txerri hiltzen ziren eta moxalen bat ere bai. Gaztaina denboran gaztainak.

9. Elgetara eta Elorriora erromeriara

- **Erref:** ELG-041/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Elgetara joan izan da gehienbat, Angiozar baino erosoagoa zegoelako, handiagoa izateaz gain. Elorrion ere bai. Bergarara gutxi, Pazkuetan-eta bakarrik. Gramola egoten zen Elgetan; soinujole gutxi zen gara hartan.

10. Trontzan aitarekin gustura

- **Erref:** ELG-041/024
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:37:37. **Bukatu:** 00:39:14

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoko lanetan motozerraz baliatu izan da ia beti, baina antzina trontzarekin jarduten zuten. Aita eta biak ondo konpontzen ziren trontzan baina anaiarekin gaizki.

11. GMC kamioia hobia idiak eta gurdia baino

- **Erref:** ELG-041/025
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:40:53

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zura idiekin garraiatzen zuten hasieran. GMC kamioiak agertu zirenean aurrerakuntza handia izan zen. Eskuz kargatzen zuten arren, lan horrek ez zien beldurrik ematen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com